



Gaur urriaren batean Eusko Jaularitzak Bake Planaren inguruan egin beharreko agerraldia dela eta, STEE-EILASek adierazi nahi du Bake planaren oinarria izango den agiriaren edukiekin neurri handi batean bat datorrela, eta interes handia duela bakerako hezkuntza zabal dadila ikastetxeetan.

Izan ere beharrezkoa dugu bakea eta adiskidetzarako prozesua eta ezinbestekoa hezkuntza munduak ere egotea. Eta behar horrek euskal gizartearen gehiengoaren adostasuna duelakoan gaude. Hezkuntzan bakegintza elkarbizitzarekin lotuta doa, eta, zentzu zabalean, honako hau guztia dagokio:

- Giza eskubideak ezagutzea eta defendatzea, aniztasuna baloratzea, pertsona guztien pareko balioa onartzea, hezkidetzaren bultzatzea
- Gatazkek konpontzeko elkarrizketa baliatzea, proiektuak gauzatzeko bide demokratikoak erabiltzea...
- Indarkeriaren biktima guztiekin enpatia lantzea, biolentzia horren jatorria edozein izanda ere: politikoa, soziala, generoari lotuta...
- Planaren kudeaketari begira, bakearen eta bizikidetzaren kultura ikastetxetatik, zeharka, eta errekurso nahikoa emanez artikulatu behar delakoan gaude.

Urriaren bateko agerraldi instituzionalean ez dugu parte hartuko baina gertutik jarraitu nahi dugu bertan abiatu daitekeen bakegintza prozesuaren fase berria.

STEE-EILAS sindikatuak jakin badaki egoera aldatu dela eta agian, denok urrats berriak emateko garaia iritzi dela. Zentzu horretan, STEE-EILAS plan honek eskaintzen dituen aukerak aztertzeko prest dago, beraren jarraipena eginez eta Hezkuntza Sailarekin eta beste hezkuntza eragileekin elkarlanerako bideak bilatuz. Ez dugu txeki zuririk eskaintzen ezta alferrikako fidagarritasuna agindu ere; baina lan egiteko eta parte hartzeko prestutasuna ez dugu falta. Horregatik ez dugu beharrezkoa ikusten Planaren inguruko agerraldian gure presentzia. Urriaren 2tik aurrera parte hartzeko egiten diguten edozein proposamena aztertuko dugu. aztertzeko prest egongo gara.

2013ko urriak 1